



HAURRENTZAKO ANTZERKIA

Helburu orokorrak:

- Gorputzaren eta mugimenduaren bidez emozio jakin batetik **pertsonaiak sortzea**. Barrualdetik kanpoaldera. Horrek beste leku batzuetan kokatzen laguntzen digu, horrela sortu beharreko pertsonaiarekin enpatizatu ahal izateko.
- Sormena, kontzientzia, enpatia, irudimena, gorputz- adierazpena eta emozionala sustatzea.

Helburu Espezifikoak

- Benetako eszenak **interpretatzea** eta amaiera positiboa ematea. Eszenak eta pertsonaiak taldean eta bakarka sortzea.
- **Taldean lan egitea**, taldea-unitatea sortzeko (Taldleko kohesioa). Konfidantza taldearen beraren bidez lantzea. Ikasleen artean entzutea sustatzea jolasen bidez.
- Pertsonaiantzat **ahotsak eta gorputz – eta portaera -egiturak sortzea**. Gorputzaren kontzientzia lantzea mugimenduaren, jolasaren eta interpretazioaren bidez.
- **Clown**: Barruan daramagun pailazoa pertsonairen errugabetasunetik sortzea eta taularatzea.
- **Mimika**: Hitzik gabe adieraztea, ekintzarekin eta gorputzarekin.



- **Gorputz adierazpena:** Jolasean eta dantzaren bidez gorputzarekin eta ingurunearekin konektatzea, edozein objektu, animalia, kolore edo forma gorputzaren eta irudimenaren bidez interpretatu ahal izateko.

-**Erlaxazioa:** Gure bulkadak yoda ariketen bidez kudeatzen ikastea, eszenan presentzia argia izateko.

IKASGELAKO DIDAKTIAK:

Stanislavski teknika: Pertsonaia barrutik kanpora sortzea. "irudimenezko egoera batean modu errealean egotea".

- Pieza errealak eta fikziozkoak sortuko dira, antzerki- genero eta **Performance** desberdinen bitartez:

- Pertsonaia, ekintza- ildo eta karakterizazioa.
- Ekintza gizartea eraldatzeko elementu gisa.
- Eszenaren berezko zirkunstanziak.
- Gatazka dramatikoa, amaiera positibo bihurtzeko inprobisazioen bidez norberak bizitako benetako istorioak erabiliz.



INPROBISAZIOAK:

Teknika ulertzea: Gure bernetik sortzen da, gure eguneroko errealitatetik, gure nahietatik, gure eskubiteetatik, gure ametsetatik...

Gure pertsonaiari emozioak ematea: Haserrea, beldurra, poza, sufrimendua, maitemindua, ausardia...

Eszenak edo inprobizazioak ez dira aldez aurretik idatzitako gidoi baten gainean lantzen. Honako puntu hauetan zentratuko dira: Zer gertatzen da eszenan?, zeintzuk dira zirkunstantziak?, Zein da nire helburua? Eta Zer egin behar dut lortzeko?

Galderei erantzun ondoren, eszenak modu inprobisatuan landuko dira. Ikasleek askatasun osoa izango dute beren hitzak erabiltzeko. Alde batetik, lan honen bidez, haurraren irudimena eta beren presentzia ingurunean lantzea lortuko genuke. Beste aldetik, aldez aurretik idatzitako eszena batzuk, osatu gabe daudenak, landuko dira klasean.

ANTZERKI ESTILO DESBERDINAK:

KOMEDIA- MONOLOGOA- DRAMA- CLOWN- PERFORMANCE.